



Prensa Oharra

Nota de prensa

Eusko Legebiltzarrerako 2009ko Hauteskundeak**Hauteskunde emaitzak bildu eta zabaltzeko 3.500 pertsona erabiliko ditu
Herrizaingo Sailak**

Herrizaingo Sailak 3.500 pertsona erabiliko ditu martxoaren 1eko (igandea) Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunde emaitzak bildu eta zabaltzeko antolatu duen planaren baitan. Aurreikuspenen arabera, emaitzak gaueko hamaikak baino lehen ezagutzera emango dituzte Lehendakaritzaren egoitzatik, www.elecciones.net web orriaren eta onetsitako 30 hedabideen bidez.

Herrizaingo Sailak Eusko Jaurlaritzako informatika eta telekomunikazio sarea erabiliko du, hauteskunde mahai bakoitzeko emaitzen bilketa bideratzeko, prozesamendu estatistikoa egiteko eta unean-uneko emaitzen berri emateko.

3.500 lagunek parte hartuko dute prozesu honetan; arduradunek, teknikariek, hauteskunde mahai bakoitzean dauden Administrazioaren ordezkariak eta telefonia eta informatika operadoreak. Zenbatutako boto kopurua esanguratsua eta hiru lurraldean artean orekatua denean hasiko dira datuak publikoki zabaltzen. Une horretatik aurrera, informazioa minutuz minutu eguneratuko dute, boto guztiak (%100) zenbatu arte.

Lan egiteko modu honek arraska izan zuen aurreko hauteskundeetan eta herritarrei boto zenbaketa fidagarritasunez eta bizkortasunez zabaltzea bermatzen du.

90. urteaz geroztik ohitura denez, Herrizaingo Sailak paper ekologikoa erabili du soilik (birziklatutakoa eta agente kimikorik gabekoa) txartelak, gutun-azalak eta hauteskunde inprimakiak egiteko. Guztira, 28 milioi txartel eta 2,4 milioi gutun-azal baino gehiago egin ditu.

Herrizaingo Sailak hautestontzien ohiko metalezko zigiluaren ordez plastikozko bat jarri du; eskuz, erremintarik gabe, itxi eta hautsi ahal dena.

Guztira, 31 hauteslek eskatu dute ikusteko urritasuna duten pertsonentzako botoa emateko prozedura erabiltzea. Horretarako, Braille sistema ezagutu behar dute. Lehenbiziko aldia izango da sistema hori EAEko hauteskunde autonomikoetan erabiltzen dena.



Mugimendu urritasuna duten gaixo edo ezinduentzat, Herrizaingo Sailak garraio zerbitzu bat abiatu du (Gurutze Gorriaren eta DYArekin laguntzarekin) pertsona hauek hauteslekuetara eramateko. 2005ean 200 bat hauteslek erabili zuten zerbitzu hau.

Agerraldiak

Hauteskunde egunean, Maria del Yermo Urquijo Herrizaingo Sailburuordeak bi agerraldi egingo ditu Lehendakartzan (arratsaldeko ordu batean eta seietan) eta parte hartze mailaren eta eguneko gertaera garrantzitsuenen berri emango du. 2005eko hauteskundeetan, eguerdirako, hautesleen %16k bozkatu zuten, eta arratsaldeko bostetarako, %48k.

Bozketa itxi ostean, Javier Balza Herrizaingo Sailburua bi aldiz agertuko da hedabideen aurrean; lehenbizi, datuak publikoki zabaltzen hasten direnean eta, bigarrena, boto gehienak (ia %100) zenbatuta dituztenean.

Sailburuaren agerraldia ekitaldi instituzional baten barruan egongo da. Ibarretxe Lehendakaria izango da ekitaldi horretan, eta hainbat instituzio eta erakunderen ordezkariak ere gonbidatu dituzte; Eusko Jaurlaritza, Aldundiak, Udalak, alderdi politikoak, hedabideak, profesionalen eta enpresarien elkarteak eta herritarren ordezkarietako erakundeak.

Hedabideetako 150 profesional

Guztira, 150 profesional (30 hedabideetako teknikarien eta kazetarien artean) onetsi dituzte, oraingoz, hauteskunde eguna Lehendakartzatik jarraitzeko.

Bertaratutako profesionalen lana errazteko, Herrizaingo Sailak irrati eta telebistako seinale instituzional bat zabalduko du eta telefono lineak eta interneterako sarbidea eskainiko ditu, baita emaitzak zabaltzeko erabiliko duten intraneterako sarbidea ere.

Intranet horretan alderdi politikoak (beren egoitzetatik) eta beste erakunde publiko batzuk konektatu ahal izango dira. Ehun bat erakundek eta hedabideek eskatu dute sarbide hori izatea.

www.elecciones.net webgunean Herrizaingo Sailak unean-uneko datuak emango ditu. 12 mila bisita jaso ditu orriak azken hilabeteetan. Webgune honek datu base bat eskaintzen du, etengabe informazio interesgarria ematen duena, hala nola, 1977. urteaz geroztik



Euskadiko hauteskunde guztien emaitzak, lege arautzea, hauteskunderi buruzko albisteak, inkestak eta hauteskunde prozesu honi eta aurrekoei buruzko informazioa.

Hauteskunderi buruzko zalantzak argitzeko, hautesleek herritarrei arreta emateko Eusko Jaurlaritzako zerbitzua (ZUZENEAN) erabili behar dute, 012 telefono zenbakiarekin batera. Zerbitzu honek aurreko hauteskundeetan hautesleei arreta emateko telefono zenbakiak zuen funtzioa betetzen du.

Gainera, martxoaren 2an, lehen orduan, administrazio publikoaren, alderdi politikoen eta beste erakunde batzuen berrehun ordezkari bano gehiagok hauteskunde emaitzak udalerrri eta lurralde historikoen arabera banakatuta eskainiko dituen liburu bat jasoko dute, Herrizaingo Sailak argitaratuta.